



## Amatxiren taloa

Amatxik talo bat egin zuen : borobila, arto irinez, arras goxoa. Leiho hegian, hozten ezarri zuen...

Baina Amatxi ohartu gabe, taloak ihes egin du. Itzulika, itzulika, nehork ikusi gabe, taloa badoa hara, bide handian gaindi...

Bat-batean, talo borobilak untxi bat gurutzatzen du :

- Janen zaitut, talo borobila - erraiten dio untxiak. 5

- Ez, ez,... etxetik ihes egin dut eta ez nauzu atzemanen ! Agur !...

Itzulika, itzulika, bere bidean badoa... Baina, hor, zuhaitz baten gibelean, zer ikusten du ?... Otso 10  
handi bat.

- Talo borobila, janen zaitut...

- Ez, ez... etxetik ihes egin dut ; untxiak ez nau atzeman eta zuk ere ez nauzu harrapatuko !

Itzulika, itzulika, bere bidean badoa. 15

Baina, han, harri baten gibelean, zer ikusten du ? Hartz bat.

- Talo borobila, janen zaitut !

- Ez, ez, etxetik ihes egin dut ; untxiak ez nau atzeman, otsoak ez nau harrapatu eta zuk ez nauzu janen. Agur !

Itzulika, itzulika, bere bidean badoa. 20

Baina, bide bazterrean, zer ikusten du ? Axeri bat.

- Oi zer talo goxoa janen dudan ! - **zioen.**

- Ez, ez, ni ez naiz zure askaria ! - **ihardetsi** zion taloak. Etxetik ihes egin dut ; untxiak ez nau



**zioen** : erraiten zuen.

**ihardetsi** : erantzun.



25 atzeman ; otsoak ez nau harrapatu ; hartzak ez nau jan eta zuk ez nauzu janen !

– Zer diozu ? Ez zaitut ongi entzuten !

Taloa hurbildu zaio :

– Etxetik ihes egin dut eta...

30 – Nola ? Zer erran duzu ? Deus ez dut ulertzen ! – erantzuten dio axeriak.

Orduan, taloa oraino gehiago hurbiltzen zaio eta axeriaren beharri ziloan haxe erraiten du :

– Etxetik ihes egin dut eta untxi...

35 Axeriak ahoa zabaltzen du eta klask ! taloa oso-osorik irensten.

Eta Perrutxuneko Amatxi pentsaketa ari da sukaldeko leiho ondoan :

– Non ote da ene talo borobila, arto irinez egina, hain goxoa ?...

Flammarion argitaletxeko  
*Histoire d'une galette*  
ipuinetik egokitua.



## 1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nolako zen Amatziren taloa ?
- Zure ustez zergatik ihes egin du taloak ?
- Zer egin nahi dute untxiak eta otsoak ?
- Nola enganatu du axeriak taloa ?
- Untxia, otsoa, hartza eta axeria. Lauetarik abilena zein da ?

## 2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Taula hau kaierean kopia eta ereduaren arabera osa.

Aditza	iraganean	orainaldian	geroan
kantatu	kantatu dut	kantatzen dut	kantatuko dut
jan	jan dut	jaten dut	janen dut
galdatu	.....	.....	.....
ikusi	.....	.....	.....
atzeman	.....	.....	.....

► Elkorren ariketa : erdua ikus eta segi.

- |                             |                  |
|-----------------------------|------------------|
| - Haize gaixtoa heldu da.   | - Axeria jin da. |
| - E ? Zer erran duzu ?      | - .....          |
| - Haize gaixtoa heldu dela. | - .....          |
| - Taloa jan dut.            | - .....          |
| - E ? Zer erran duzu ?      | - .....          |
| - Taloa jan dudala !        | - .....          |

► Hitz hauek idatz eta janariari doazkionak gorritz ingura.

hodeia	patarra	izarra	salda
taloa	eliza	askaria	arroltzea
erreka	sorgina	orena	sugea

## 3 BESTE LAN BATZUK

- Ikasgelako lagun guzien artean taloak eginen ditugu.
- Nola egiten dira taloak ? Badakizu, beraz errazu !
  - Denen artean taloen egiteko errezeta idatziko dugu.